



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2019IPLE0008

Eguna: 2019-07-23

Ordua: 19:00 – 19:40

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Iasa Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena..... Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez Astigarragako EH Bildu
- Esti Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide Astigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz Astigarragako EH Bildu
- Urkiri Salaberria Gracia..... Astigarragako EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro..... Astigarragako EAJ-PNV
- Antton Costa Casco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo..... Udal-talde Sozialista

Bertaratu ez direnak

- Aintzane Barandiaran Ezponda Astigarragako EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües..... Astigarragako EAJ-PNV

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
2019ko uztailaren 2ko akta onartzea.	1.	Aprobación del acta de 2 de julio de 2019.
Garbitania zero zabor sozietatea.	2.	Sociedad pública Garbitania zero Zabor.
Urumeako ibai-parkearen izena	3.	Denominación del parque fluvial del Urumea.
Kontu Orokorra. Behin betiko onarpena.	4.	Cuenta General. Aprobación definitiva.
Plan Estrategikoa. Alegazioa eta behin betiko onarpena.	5.	Plan Estratégico. Alegación y aprobación definitiva.
Kreditu transferentzia: 2019-KALD-0005 eta 2019-KALD-0006	6.	Transferencia de créditos: 2019-KALD-0005 y 2019-KALD-0006
Kreditu gehigarria: 2019-KALD-0007	7.	Crédito adicional: 2019-KALD-0007
Floreaga bideko obraren inguruko erreparoa.	8.	Reparo sobre las obras de Floreaga bidea.
Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua: esleipena	9.	Contrato del servicio de asistencia domiciliaria: adjudicación



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Babestuetako etxebizitzetako erabiltzaileentzat laguntza zerbitzuaren kontratua: esleipena.	10.	Contrato del servicio de asistencia a personas usuarias de las viviendas tuteladas: adjudicación.
Informazio, galdera eta eskariak.	11.	Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

Gai zerrendako 7. gaia aurretik dagokion batzorde informatzailean aztertu gabe dagoenez, gai zerrendan sartzeko berrestea eskatzen da, aho batez onartu dena.

El punto 7 del orden del día no se ha tratado previamente en la comisión informativa correspondiente, por lo que se solicita se confirme su inclusión en el orden del día, algo que se aprueba por unanimidad.

1.- 2019ko uztailaren 23ko akta onartzea.

Nerea zinegotziak adierazi du akats bat dagoela 5. aztergaietan (*udal osoko bilkuraren aldizkotasuna*), izan ere, Astigarragako EAJ-PNV eta Udal Talde Sozialistako kideek ez zuten kontra bozkatu, abstenitu baitziren.

Zuzenketa hori egin ondoren, akta aho batez onartu da.

1.- Aprobación del acta de 2 de julio de 2019.

La concejal Nerea indica que en el punto 5 del orden del día (*periodicidad del pleno municipal*) se ha producido un error, ya que los/las miembros de EAJ-PNV y del Grupo Municipal Socialista de Astigarraga no votaron en contra, sino que se abstuvieron.

Realizada la citada corrección, se aprueba el acta por unanimidad.

2.- Garbitania zero zabor sozietatea.

Akordio-proposamen hau aurkeztu da onartua izan dadin:

Lehena.- *Garbitania Zero Zabor, SL sozietateari eskatzea 2018ko maiatzaren 30eko udal osoko bilkurak hartutako akordioaren egitea gelditu dezan.*

Bigarrena.- *Azterketa ekonomiko eta juridikoa egitea balioesteko sozietatean mantentzeko egokitasunaren inguruko bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta juridikoa.*

Hirugarrena.- *Akordio honen berri ematea Garbitania Zero Zabor, S.L. sozietateari.*

Alkateak adierazi du zalantzak zeudela kide izatearen inguruan. Azaldu du enpresatik ateratzeko akordio jakinarazi zenean, enpresa likidazioa egiten saiatu zela, baina ez zuela erantzunik jaso, beraz, likidazioa ez zenez

2.- Sociedad pública Garbitania zero Zabor.

Se presenta, para su aprobación, la siguiente propuesta de acuerdo:

Primero.- *Solicitar a Garbitania Zero Zabor, SL que paralice la ejecución del acuerdo adoptado en la sesión plenaria de 30 de mayo de 2018.*

Segundo.- *Proceder a realizar un análisis económico y jurídico para valorar la viabilidad técnica, económica y jurídica de la procedencia de mantenerse dentro de la sociedad.*

Tercero.- *Dar cuenta del presente acuerdo a la sociedad Garbitania Zero Zabor, S.L.*

El alcalde señala que existen dudas sobre si se seguía siendo socio o no. Según explica, cuando se comunicó el acuerdo para la salida de la empresa, ésta intentó efectuar la liquidación sin obtener respuesta, por lo que, al no consumarse la



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

gauzatu, kide izaten jarraitzen dugula.

Gaineratu du pentsatu dela orain atera beharrean, aztertzea hainbat zerbitzu (*merkataritza eta industrialdeko hondakinen bilketa, eta kale garbiketa*) publikatzeko baliagarria den, eta gero erabakitzea irten edo ez, baina asmoa ez dela aurreko hondakin bilketa sistemara bueltatzea.

Mikel zinegotziak hitza hartu eta adierazi du bozeramaile batzordean esandakoa errepikatuko duela, eta akordio-proposamenaren kontra bozkatuko duela. Adierazi du harrিতා dagoela urtebete ondoren lehen akordioa gauzatu ez delako, eta horregatik galdetu ziola udal-idazkariari. Azaldu du kudeaketaren inguruko informazioa eskatu duela, eta horren inguruan Garbitaniak egindako kronograma pasa zaiola, baina beste alderdiaren bertsioa ezagutu nahi zuela. Dena den, kudeaketa ez zaiola egokiena iruditu, udal kontu-hartzailearekin harremanetan jartzen urtebete pasa baita.

Gaineratu du ez diola zentzurik ikusten enpresatik ez ateratzeari, eta egia dela alkateak esan bezala zerbitzu berrietarako erabili daitekeela, baina horretarako baloratu beharko dela zer den onuragarriagoa.

Bukatzeko, adierazi du espediente honetan eta akordio gauzaketan funtzio-utzikeria egon dela berresten duela.

Nerea zinegotziak hartu du hitza eta adierazi beraiek ere kontra bozkatuko dutela, erabakia atzerapausotzat hartzen dutelako. Komentatu du beste zerbitzu batzuk emateko erabili nahi dela esan arren, enpresa beti egongo dela lotuta atez atez hondakin bilketa sistemari, denek dakitela nola eta zertarako sortu zen, EHBilduren “txiringito” bat dela, eta 121 mila euro erabili zirela bertan sartzeko. Bukatzeko adierazi du beraiek planteatu zutela ateratzea, eta ez diotela zentzurik ikusten bertan mantentzeari.

Alkateak Nerea zinegotziari erantzun dio “txiringito”tzat hartzea bera balorazioa dela, baita diru-ekarpena enpresan dagoela ere, eta ateratzea erabakiz gero itzuliko dela. Baina udalak ateratzea erabaki zuen arren, ez dela likidapena

liquidación, seguimos siendo socios.

Añade que se está estudiando si en vez de salir ahora podría resultar útil publicar diferentes servicios (*recogida de residuos del polígono industrial y comercial y limpieza viaria*) y decidir más adelante si salir o no, pero que en principio no piensan en volver al anterior sistema de recogida de residuos.

El concejal Mikel toma la palabra y señala que va a repetir lo que ya ha expresado en la comisión de portavoces, votando en contra de la propuesta de acuerdo. Indica asimismo que le extraña que después de haber transcurrido un año el acuerdo no se haya formalizado todavía, por lo que se dirigió a la secretaria municipal para preguntarle al respecto. Explica cómo ha solicitado información sobre la gestión, habiendo recibido el cronograma realizado por Garbitania en ese sentido, pero que deseaba conocer la versión de la otra parte. Añade que en cualquier caso la gestión no le ha parecido adecuada, pues ha tenido que esperar un año para ponerse en contacto con la interventora municipal.

Señala a continuación que no le ve sentido al hecho de no abandonar la empresa y que, aunque es verdad que tal y como dice el alcalde podría utilizarse para los nuevos servicios, en ese caso debería valorarse qué resulta más conveniente.

Para finalizar señala que el expediente y la formalización del acuerdo confirman que se ha producido una dejación de funciones.

La concejala Nerea toma la palabra y señala que su grupo también votará en contra, por considerar que la decisión constituye un paso atrás. Comenta que, aunque digan que se quiere utilizar para ofrecer otros servicios, la empresa siempre estará relacionada con el sistema de recogida de residuos puerta a puerta, que todo el mundo sabe cómo y para qué fue creada, que es un “chiringuito” de EHBildu, y que se utilizaron 121 mil euros para entrar en ella. Para finalizar señala que fueron ellos quienes plantearon la salida, y que no le ven ningún sentido a mantenerse en la empresa.

El alcalde responde a la concejala Nerea que lo del “chiringuito” es una valoración suya, así como que la aportación económica permanece en la



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

gauzatu, ulergarria ez dena. Eta berretsi du asmoa dela beste zerbitzu batzuentzako baliagarria den aztertzea.

Andoni zinegotziak hitza hartu eta langilearekiko errespetua eskatu dio Nerea zinegotziari. Adierazi du horiek azterketak gainditu zituztela enpresan sartzeko, eta enpresa berak auditoriak pasatzen dituela, baita kontuak Kontuen Auzitegiak aztertzen dituela ere.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **onartu** da aldeko 6 botoekin (*Astigarragako EH Bildu*) eta kontrako 5 botoekin (*Astigarragako EAJ-PNV eta Udal talde Sozialista*).

empresa y será devuelta si finalmente se apostara por la salida. Pero que, aunque el ayuntamiento decidió salir, la liquidación sigue sin llevarse a cabo, lo cual resulta incomprensible. Y confirma que su idea es estudiar si resulta útil para otros servicios.

El concejal Andoni toma la palabra y pide a la concejala Nerea respeto por las personas trabajadoras. Señala a continuación que superaron los exámenes para incorporarse a la empresa, que dicha empresa pasa sus auditorías, y que el Tribunal de Cuentas analiza las cuentas correspondientes.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** con 6 votos a favor (*Astigarragako EH Bildu*) y 5 en contra (*EAJ-PNV Astigarraga y Grupo Municipal Socialistas*).

3.- Urumeako ibai-parkearen izena

Alkateak kultura, euskara eta jaietako batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

2018ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran Urumea ibaiaren ondoko parkearentzat onartutako izena aldatzea, eta aipaturiko parkeari "Andre Gobadarien parkea" izena jartzea.

Alkateak adierazi du izena idatziz erabiliko denez, idazteko forma arautuari jarraituko zaiola.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du harrিতa daudela gaiaren inguruko txostenik ez dagoelako. Urkiri zinegotziarentzat, berriz, penagarria da izena aldatzea, euskalkiak bultzatu behar baitira, garrantzitsua delako seme-alabei utziko zaiena; eta galdetu du Euskaltzaindiaren arauak jarraituko diren beti.

Alkateak erantzun du muga jartzea zaila dela, baina gaia udal teknikariarekin aztertu dela. Eta Andoni zinegotziak azaldu du kale izendegian ez direla txostenik egoten.

Bestetik, Mikel zinegotziak komentatu du gaia

3.- Denominación del parque fluvial del Urumea.

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de cultura, euskara y fiestas:

Modificar la denominación para el parque fluvial adoptado en la sesión plenaria de 30 de mayo de 2018, y denominar el susodicho parque como "Andre Gobadarien parkea"

El alcalde señala que teniendo en cuenta que el nombre se utilizará por escrito, se optará por la forma de redacción normalizada.

La concejala Nerea toma la palabra y señala que les extraña que no exista ningún informe sobre ese tema. La concejala Urkiri, por su parte, lamenta el cambio de nombre, pues considera que los dialectos deben impulsarse, porque es algo que va a dejar a los hijos e hijas, por lo que tiene su importancia; y a continuación pregunta si siempre se van a seguir las normas de Euskaltzaindia.

El alcalde le responde que es difícil poner un límite pero que se ha estudiado el tema con la técnico municipal. Y el concejal Andoni explica que para el



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

kultura batzordean aztertu zela, eta bertan gaia sakonki aztertu eta eztabaidatu zela.

Urkiri zinegotziak komentatu du ez zuela jaso batzorderako deialdia.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **onartu** da aldeko 7 botoekin (*Astigarragako EH Bildu eta Udal talde Sozialista*) eta kontrako 4 botoekin (*Astigarragako EAJ-PNV*).

callejero no se realizan informes.

Por su parte, el concejal Mikel comenta que el tema fue tratado en la comisión de cultura, donde se analizó y debatió en profundidad.

La concejala Urkiri comenta que no fue convocada a la comisión.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** 7 votos a favor (*Astigarragako EH Bildu y Grupo Municipal Socialistas*) y 4 en contra (*EAJ-PNV Astigarraga*).

4.- Kontu Orokorra. Behin betiko onarpena.

Alkateak ogasun eta ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- 2018ko Kontu Orokorra onartzea.

Bigarrena.- 21/2003 Foru Arauak, 63.5 artikuluan xedatzen duenaren arabera Udalak behar bezala onetsitako Kontu Orokorraren berri emango dio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

4.- Cuenta General. Aprobación definitiva.

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- Aprobar la Cuenta General 2018.

Segundo.- De conformidad a lo dispuesto en la Norma Foral 21/2003, en su artículo 63.5 el Ayuntamiento rendirá al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la Cuenta General debidamente aprobada en los términos que establece su normativa específicamente.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

5.- Plan Estrategikoa. Alegazioa eta behin betiko onarpena.

Alkateak ogasun eta ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- 2019ko maiatzaren 28an, 2115 sarrera erregistroa, kontu-hartzaileak aurkeztutako alegazioa onartzea, Erroak taldeari 22.875,00 euroko dirulaguntza izenduna, eta lehiaketa askean kontratazio dirulaguntzak 30.000,00 eurotan sartuaz.

5.- Plan Estratégico. Alegación y aprobación definitiva.

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- Aprobar la alegación presentada por la interventora con fecha 28 de mayo de 2019, registro de entrada 2115, incluyendo una subvención nominativa a Erroak de 22.875,00 euros y de libre competencia para ayudas a la contratación de 30.000,00 euros.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Bigarrena.- 2017-2019 udalaren diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

Hirugarrena.- Behin betiko onarpen erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

Segundo.- Aprobar definitivamente el Plan Estratégico de ayudas y subvenciones municipales 2017-2019.

Tercero.- Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el acuerdo de aprobación definitiva.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

6.- Kreditu transferentzia: 2019-KALD-0005 eta 2019-KALD-0006

Alkatetzaren 858/2019 eta 859/2019 Dekretuen berri eman da, kreditu transferentzi modalitatean kredituak aldatzea onartzen dituztenak.

Alkateak azaldu du horiek izapidetu izanaren arrazoia izan dela, besteak beste, hiru kontratazio espediente bideratu ahal izatea: ikastolako atezain- eta mantentze-zerbitzua, udal eraikinen garbiketa eta Kontxaren lorategia urbanizatzea.

6.- Transferencia de créditos: 2019-KALD-0005 y 2019-KALD-0006

Se ha dado cuenta de los Decretos de Alcaldía 858/2019 y 859/2019, por los que se aprueban modificaciones de créditos en la modalidad de transferencia de créditos.

El alcalde explica que la razón para su tramitación ha sido, entre otras, por la tramitación de tres expedientes de contratación: el servicio de portería y mantenimiento de la ikastola, la limpieza de los edificios municipales y la urbanización de Kontxa lorategia.

7.- Kreditu gehigarria: 2019-KALD-0007

Akordio-proposamen hau aurkeztu da onartua izan dadin:

Lehena.- 900.000,00 euroko kreditu aldaketari hasierako onarpena ematea, 2019-KALD-0007 kreditu gehigarri modalitatean.

Bigarrena.- Espedientea 15 egun balioduneko aldian jendaurrean erakusgai jartzea, alegazioak egiten ez badira espedientea behin betiko onartuta geratuko dela azalduz, beste akordio baten beharrik gabe.

Alkateak azaldu du espediente honen helburua dela, diruzaintzako gerakinarekin, brigadarentzako lokal bat erosteko kontu-sail bat sortzea eta hori diruz hornitzea. Komentatu du brigada kiroldegi azpitik ateratzeko bi arrazoi daudela, batetik, arriskua ekiditea; eta bestetik, kirolarentzako espazioa irabaztea. Bukatzeko

7.- Crédito adicional: 2019-KALD-0007

Se presenta, para su aprobación, la siguiente propuesta de acuerdo:

Primero.- Proceder a la aprobación inicial de la modificación de créditos, en la modalidad de crédito adicional 2019-KALD-0007, por un importe de 900.000 €.

Segundo.- Someter el expediente a información pública por el plazo de 15 días hábiles, reseñando que caso de no formularse alegaciones quedará el expediente aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

El alcalde explica que con el remanente de tesorería quieren crear una partida que permita comprar un local para la brigada, con la consiguiente provisión económica. En ese sentido comenta que quieren sacar la brigada de los bajos del polideportivo por dos razones, por una parte,



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

adierazi du osokora premiaz ekartzearen arrazoia izan dela udalak lokalak erosteko aukera nahiko ona duela eta erosketa espediente irailean hasi nahi dutela izapidetzen.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du ez zaiola egoki iruditzen gaia osokora ekarri izana ogasun batzordetik pasa gabe. Alkateak erantzun dio batzorde horretan azalpen berdinak emango lirakekeela, eta ekarri bada izan dela, erosketarako dirua dagoelako, baina kreditu gehigarria onartu behar dela erosketa espediente irekitzeko, bestea ezin baita ireki.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **onartu** da aldeko 6 botoekin (Astigarragako EH Bildu), abstentzio 1ekin (Udal talde Sozialista) eta kontrako 4 botoekin (Astigarragako EAJ-PNV),

para evitar el riesgo, y por otra, para ganar espacio para el deporte. Para finalizar señala que la razón de traerlo al pleno con urgencia ha sido que el ayuntamiento tiene una oportunidad bastante buena de comprar los locales, y que en septiembre quisieran iniciar la tramitación del expediente de compra.

La concejal Nerea toma la palabra, y señala que no le parece adecuado que se haya traído el tema al pleno sin pasar por la comisión de hacienda. El alcalde le responde que en dicha comisión se darían las mismas explicaciones, y que si se ha traído ha sido porque, aunque hay dinero para la compra, debe aprobarse un crédito adicional para la apertura del expediente de compra, pues el otro no puede incoarse.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** con con 6 votos a favor (Astigarragako EH Bildu), 1 abstención (Grupo Municipal Socialistas) y 4 en contra (EAJ-PNV Astigarraga).

8.- Floreaga bideko obraren inguruko erreparoa.

Alkateak azaldu du Floreaga bidea konpontzeko obra kontratatuaren espediente bat ireki zela, eta obra gauzatzen zen bitartean bigarren bat; eta horregatik kontu-hartzaileak erreparoa bat egin zuela maiatzean. Gaineratu du udal arkitekto teknikoari gaiaren inguruko txostena eskatu diola, eta bi txostenak aztertu ondoren, azalpenak ontzat eman dituela, eta dekretu bidez erabaki bigarren espedientearen faktura onartzea.

8.- Reparación sobre las obras de Floreaga bidea.

El alcalde explica cómo se abrió un expediente de obra para la reparación de Floreaga bidea, y un segundo mientras se ejecutaba la obra, por lo que la interventora presentó un reparo en mayo. A continuación añade que solicitó un informe sobre ese tema al arquitecto técnico municipal, y que, tras analizar ambos informes, ha dado por buenas las explicaciones, decidiendo por decreto aprobar la factura del segundo expediente.

9.- Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua: esleipena

Alkateak kontratazio mahaiaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehen.- Astigarragako udalerrirako etxez etxeko laguntzaren zerbitzu-kontratua ARRETA ZERBITZUAK SL enpresari esleitzea, lehiaketa honetan punturik gehien lortu duen enpresa izan baita.

9.- Contrato del servicio de asistencia domiciliaria: adjudicación

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la mesa de contratación:

Primero.- Adjudicar el contrato de servicios de la ayuda domiciliaria de Astigarraga a la empresa ARRETA ZERBITZUAK SL, al ser la propuesta que mayor puntuación ha obtenido en este concurso.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Bigarrena.- Zerbitzuen ordainketa tarifa hauen arabera egitea:

1. urteko lanaldi arruntak: 20,30 euro/ordu (BEZik gabe)
1. urteko jaiegunetako orduak: 22,55 euro/ordu (BEZik gabe)
2. urteko lanaldi arruntak: 21,30 euro/ordu (BEZik gabe)
2. urteko jaiegunetako orduak: 23,60 euro/ordu (BEZik gabe)

Hirugarrena.- Enpresa esleipendunak, kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean, 10.573,50 eurotako behin betiko bermea jarri beharko du Udaleko Diruzaintza Sailean; halaber, agiriak aurkeztu beharko ditu eta alde zurretiko baldintzak egiaztatu, baldintza plegu administratiboan 26. klausulan adierazten den moduan (horren kopia bat helarazten da).

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

Segundo.- Abonar los servicios de acuerdo con las siguientes tarifas:

- Jornada ordinaria del 1^{er} año: 20,30 euros/hora (IVA excluido).
- Jornada festiva del 1^{er} año: 22,55 euros/hora (IVA excluido).
- Jornada ordinaria del 2^o año: 21,30 euros/hora (IVA excluido).
- Jornada festiva del 2^o año: 22,60 euros/hora (IVA excluido).

Tercero.- La empresa adjudicataria deberá – en el plazo de 10 días contados a partir del siguiente de la notificación de la adjudicación del contrato – depositar en el Departamento de Tesorería del Ayuntamiento la garantía definitiva de 10.573,50 euros, así como presentar la documentación y verificar los requisitos previos en la forma que se estipula en la cláusula 26 del pliego de condiciones administrativas, del que se remite una copia.

Cuarto.- Notificar el presente acuerdo a todos los interesados en el procedimiento, y publicarlo en el perfil del contratante del Ayuntamiento.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

10.- Babestuetako etxebizitzetako erabiltzaileentzat laguntza zerbitzuaren kontratua: esleipena.

Alkateak kontratazio mahaiaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Astigarragako babestuetako etxebizitzetako erabiltzaileentzat laguntza zerbitzuaren kontratua ARRETA ZERBITZUAK SL enpresari esleitzea 59.265,11 eurotan (bez kanpo), lehiaketa honetan punturik gehien lortu duen enpresa izan baita.

Bigarrena.- Enpresa esleipendunak, kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean, 2.963,26 eurotako behin betiko bermea jarri beharko du

10.- Contrato del servicio de asistencia a personas usuarias de las viviendas tuteladas: adjudicación.

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la mesa de contratación:

Primero.- Adjudicar el contrato del servicio de asistencia a personas usuarias de las viviendas tuteladas de Astigarraga a la empresa ARRETA ZERBITZUAK SL por 59.265,11 euros (IVA sin incluir), al ser la propuesta que mayor puntuación ha obtenido en este concurso.

Segundo.- La empresa adjudicataria deberá – en el plazo de 10 días contados a partir del siguiente de la notificación de la adjudicación del contrato – depositar en el Departamento de Tesorería del



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Udaleko Diruzaintza Sailean; halaber, agiriak aurkeztu beharko ditu eta aldez aurretiko baldintzak egiaztatu, baldintza plegu administratiboen 26. klausulan adierazten den moduan (horren kopia bat helarazten da).

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

Ayuntamiento la garantía definitiva de 2.963,26 euros, así como presentar la documentación y verificar los requisitos previos en la forma que se estipula en la cláusula 26 del pliego de condiciones administrativas, del que se remite una copia.

Tercero.- Notificar el presente acuerdo a todos los interesados en el procedimiento, y publicarlo en el perfil del contratante del Ayuntamiento.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

11.- Informazio, galdera eta eskariak.

Nerea zinegotziak adierazi du ez zaiola ongi iruditzen udal baliabideak erabiltzea ekitaldi politiko batentzat, izan ere, jai egitarauan hileko azken ostiraletan egiten den elkarteratzearen berri ematen baita.

Andoni zinegotziak erantzun dio herriko talde batek eskatu duelako jarri dela, eta azken lau urteetan ere azaldu izan dela.

Alkateak, berriz, adierazi du ekitaldi hori egongo egoera ikusita politikotzat hartu beharrean, giza eskubideen aldekotzat hartu daitekeela.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazkariak, honako agiria egin dut

Astigarragan, 2019ko uztailaren 23an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria

11.- Información, ruegos y preguntas.

La concejala Nerea señala que no le parece bien utilizar recursos municipales para un acto político, alegando que en el programa de fiestas se hace publicidad de la concentración que se celebra todos los últimos viernes de mes.

El concejal Andoni le responde que se ha hecho así a solicitud de un colectivo de la localidad, y que durante los últimos cuatro años se ha actuado de la misma manera.

Por su parte, el alcalde señala que dicho acto, teniendo en cuenta la situación actual, podría considerarse más como un acto a favor de los derechos humanos que como un acto político.